

MERKATARITZA-INDIZAEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2025eko EKAINA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,5 igo dira 2025eko ekainean

Aurreko hilaren aldean, salmentak % 0,5 jaitsi dira

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,5 igo dira aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren. Aurreko hilaren aldean, hau da, 2025eko maiatzaren aldean, % 0,5 egin dute behera prezio konstanteetako salmentek, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteetan



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Urte artean, salmenten bilakaera positiboa izan da Elikaduran, % 1,2ko igoerarekin (2025eko ekaina 2024ko ekainaren aldean), eta baita Gainerako produktuetan ere, % 4,9ko igoerarekin.

Aurreko hilarekiko (2025eko ekaina 2025eko maiatzaren aldean), salmentak % 0,8 igo dira Gainerako produktuen sektorean, eta, aldiz, Elikagaien sektorean % 1,2 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2025

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	2,5	-0,5	0,8
Araba/Álava	2,1	-0,7	-0,1
Bizkaia	3,2	-0,4	1,5
Gipuzkoa	1,4	-0,5	0,0
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	1,2	-1,2	0,6
Gainerako produktuak	4,9	0,8	1,2
Enplegu-indizea			
Euskal AE	0,5	-0,6	1,8

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2025eko Uztailaren 28a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan

Bizkaian % 3,2, Araban % 2,1 eta Gipuzkoan % 1,4 handitu dira azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak 2025eko ekainean, aurreko urteko garai beraren aldean.

Aurreko hilarekiko, berriz, salmentak % 0,7 txikitu dira Araban, % 0,5 Gipuzkoan eta % 0,4 Bizkaian.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan **okupatutako langileen** kopurua % 0,5 handitu da 2024ko ekainaren aldean. Aurreko hilarekiko, ordea, okupatutako langileen indizea % 0,6 txikitu da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urtetik urterako aldaketak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatzen dira, eta hil arteko aldakuntzak urtarokotasunik gabeko serietan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea % **100,0ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62